

Orduko denporetako Santixauak

Santixau jaixei, datozela eta gogotsu begiratu izan jakue beti; amaitxu dirala, eta gogorapen ederrekin ekartzen doguz akordura. Aurten haren gaineko kontakizun eta irudi gitxi gordeko ditzugu eta horregaitxik atzera begira jarri gara, ia urte guztiko jai bakarra ziran sasoietara.

“Ai, Santixauak! Bezperan kriston ixardia etara etxia garbitzen: lustria emon, brotxiau, brillua etarutzen hankiakin, mela-mela einda... Ez alperrik! Bixamonian igarri bez-ta! Eta konbidauak etorten bazian, txarrao ondinek, etxe garbitzen! Santixauak guretako izaten zitxunan ja lo grande pasatzekuak! Gero bakaziñorik-eta ez zeuan. Eta proba egunian, barriz, biharra ugari! Goixian bazkarixa ipintzen; bazkaldu ordurako barriro afarirako leka-patak atzera ipintzen. Bueno baina gero geratu bez dantzan!”. **Luisa Egia.**

“Santixauetan Eibartik egoten zian autobusak Ermura, Garaje Eibarresa. Santixau egunian Garellano Bandia etortzen zan eta Santa Ana egunian Flandes. Musikia. Eta antxiña basarritxarrak asto-sarekin, minbrezko asto-sare haundixekin maka-

tzak eta sagarrak eta... bueno, frutia saltzen eben. Plazan egoten zian goiz-goiz, saltzeko”. **Jesusa Ardanza.**

“Plazan egoten zuan Txixurixa, taberna bat aire librian. Hor jeuazen tilo-argbola haundi batzuk, baina itzelak eta haretxen azpizan ipiñitxa, zerrauta modura, mostradore haundi bat, mahaiak eta sillak eta ha sustau eitzen juen jai guztietarako. Haxe izaten zan plazako erromerixiori!”. **Miguel Yarza.**

“Tanborilteuak tanborra jotzen zeban esanez Santixau bezperia zala hurrengo egunian eta zelan ein bihar ziran norberan atai aurriak-eta garbitxu. Izaten zan ba ilusiño haundixa Santixauetarako! Bezperan aiuntamientuan ardaia egoten zan debalde danendako; kazuelatxo bat edo bokadillo batekin juaten zan, baina ardaia han edan bihar zan, ez zan etara-



Ohiturari jarraituz, Zezen Eguna errekan ospatzen (1956).

tzen kanpora. Eitxen zian oilluak edo oillaskua lumatu eta preparau hurrengo egunerako. Gero iluntzian urtetzen eban Bandiak, pasakallesian. Santixau bezperia izaten zan totaleko alegria; gizonak batzuk nahikua edanda eta lar be bai... Juan plazara eta, Ermuan orduan jende gitxi giñan eta halan be plazia beteta, danak eitxen eben orduan dantzan be. Itzela izaten zan! Santixau egunian gero, goizeko bedratzi t'erdietan ekitze otsen kanpai jotene...! Gero mezia, bazkarixa, erromerixa eta gabian dantzia”. **Maria Bengoetxea.**

“Zezenen eguna, nire gazte denporan akordatzen ja-

tana, izaten zian dantzasuelto eta aurrelari konkursuak. Aiuntamientuan ixa presupuesto dana gero Bandiak eruaten eban, kanpotik ekartzen eben, banda militarrik izaten zian: goizian konziertua eta atsaldian bailabliak. Andrazkuak labaderora juaten zian garbitxasunak eitxera jaixak pasauta eta lexibia eitxera. Desiatzen egoten zian aurrekuak ekitzeko. Kalerik kale urtetzen eben aurrekuan eta atzekuan eitxen eben bigarrenak eta ekartzen zitxuen andrak plazara. Espresamente labaderora juaten ziran aurrekuan etaratzeko!”. **Joseba Idigoras.**

Estibalitz González

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

SAGARDUI
poltsak
Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

ZERMÍK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMÍK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12